

Martutene

Oihane
LARRETXEA DE LA
GRANJA

Gurean normala zen militarren korneta entzutea, goi-zero sartzen zitzaigun “melodia” ibaiaren beste aldetik etxeko sukaldera. Loiolako kuartelen parean jaioa, nire bizitzako lehen urte haietan eraikin erraldoi hura paisaiaren parte zen. Hainbeste hamarkadaz bizilagunek eskatutakoarekin sintonian, 17 hektarea horiek Udalak erosiko dituen notiziak 80 eta 90eko hamarkada haietara narama. 73 milioi euro. Hiria zabalduz doa eta hortxe dago aukera paregabea. Bi mila etxe eta ekipamenduak. Zenbat emango zaio auzoari bueltan, zenbat interes publikoen mesedetan eta zenbat esku pribatuenean?

Auzoa utzita, Martutenen sustraitu ginen denboraldi batez. Urumea bide-lagun, garai haietan eta duela ez hainbeste arte, Martutene, Loiola, baita tarteko Txomin ere, periferia baino ez ziren, inoiz Donostia panpoxaren argazkian kabitzen ez ziren auzoak. Politikak eta politikariek abandonatutako biziguneak. Utzikeria totala izan da. Hori ukatuko duenik ez dago. Eta balego, gezurretan ari da.

Ez mapetan ez udal politikagintzan presente, zenbat udal ordezkari joaten saiatu eta ez ote ziren bidean galduko! Eta arrazoiak soberan egon arren, hara ez zen inor hurbildu 2011n oroitzen diren uholde larrienetakoak gertatu zi-

ren arte. Kanpainan sartzeko asmorik gabe, zin dagit: Juan Karlos Izagirre, orduan alkate, katiuskekin oroitzen dut. Bertan, lokatzetan. Literalki. Bilera ireki haietan uholdeek leherrarazi zuten urte luzez metatutako haserrea, dezepzioa... Orduan eta ez lehenago jarri zen martxan makineria arras konplexua eta beharrezkoa.

Iraultza etorri zen, eta horrekin Txomin Enea Txomin Berria deitzeko joera (!). Bertan bizitzeko itxarote zerrenda dago, eta diru eta hormigoia-lean izan bada ere, proiektu hark balio izan du betiko bizilagunei bizi baldintzak hobetzeko. Martutene berriz... mapan noiz sartuko duten zain dago. •

Euritan dantzan

Koldo SAGASTI

Euritan dantzan, horixe da aurtengo EITBko tele-maratoiaren leloa, zoritxarraren aurrean aldarte onari eusteko gonbita. Urtero bezala, gabonen ataria probestuko dute hiritarren kontzientziari dei egin eta bidezko kausa baten aldeko dirulaguntza eskatzeko, eta aurten esklerosi anizkoitzaren aurka ikerkuntzara bideratuko omen dute bildutakoa. Ezer baino lehen, bihoakie nire besarkadarik beroena zorigaiztoko gaitz horrek erasandako pertsonei eta euren ingurukoei, baina sinistuta nago gaixotasun horri aurre egiteko hain beharrezkoa den ikerketa lana karitatearen esku uztea arduragabekeria dela, areago herritarren borondate ona galdegiten dutenak aurrekontu

publikoetako dirua osasun arloko ikerkuntzarako bideratu beharko luketen berberak direnean!

Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Sistema Publikoa, behinola eredu-garria izan zena, koman dago, azken hatsetan. Ikusi besterik ez dago erakundearen barnean bata bestearen atzetik pizten diren gatazkak, hala nola medikuntza espezialitaterako lan eskaintzarako oposizioetan egindako iruzur sistematikoak, baliabideak optimizatzeko aitzakian ixten diren ospitale-zerbitzuak, edota, azkena, Donostiako erietxeko zerbitzu buruen plantoa eta ondorengo kaleratzeak. Sendagile matxinatuek salatu zuten komunikatu batean lehenago beste profesional askok salatu zutena, osa-

sun erakundearen antolakuntza eta kudeaketa bertikala dela, ardura postuak mesede kate baten arabera esleitzen direla eta irizpide politikoak hobesten direla irizpide medikoen aurrean.

Garai batean ezagutu genuen osasun sistema publikoa azkenetan dago, bai, baina ez da berezko heriotza, akabatzen ari dira, estrategia politiko deliberratu eta orokor baten emaitza baita zerbitzu publikoak finikitatzea enpresa pribatuaren mesedera. Hurrengo batean, larrialdietako itxaron gelan zazpi ordu zain emandakoan, euriteari irribarre batez aurre egin diezaiozun eskatzen digutenean, gogora dezagun txiza dela, eta ez euria, zaparradaka jaurtitzen ari zaizkiguna. •